

OHIKO GALDERAK

Cecilia Bengoleak 2022ko urriaren 25ean egingo duen ekintza artistikorako deialdia

- 1) Zein da ekintza artistikoaren iraupena? Ordubetekoa, 19:30etik 20:30era.
- 2) Nola garatuko da ekitaldia?
 - 18:45: Maite Borjabad komisarioak obra aurkeztuko du Entzungelan.
 - 19:15: parte-hartzaileak Atrio aldera joango dira.
 - 19:30–20:30: ekintza artistikoa Atrioan egingo da.
 - 20:30etik 21:30era bitarte, parte-hartzaileek Museoaren aretoak bisitatu ahal izango dituzte eskusiboki, Pappi DJak jarritako musikak girotuta.
- 3) Nola egingo dira sarrera eta akreditazioa? Parte-hartzaileak 18:45etik aurrera sartu ahal izango dira, erreserba baieztatu izanaren QR erakutsita.
- 4) Nora joan behar da?
 - 18:45: Entzungela (aurkezpena, aukerakoa).
 - 19:15: Atrioa (parte-hartzaile guztiak).
 - 20:30: Museoko aretoak (aukerako bisita).
 - 21:30: irteera (Museoaren itxiera).
- 5) Beharrezkoa da egoera fisikoren edo ezaugarri bereziren bat izatea? Ez. Parte hartu nahi duten pertsona-kopuru ahalik eta handiena etortzea nahi dugu, gehienez Museoaren 450 Lagun sar daitezke.
- 6) Beharrezkoa da dantzatzen jakitea? Mugimenduak edo koreografiak konplikatuak dira? Ez da beharrezkoa dantzatzen jakitea. Mugimenduak oso errazak dira, eta dantzariak egongo dira bertaratutakoei laguntzeko.
- 7) Eta desgaitasunen bat izanez gero? Hasiera batean, ez da inolako mugarik jarri arrazoi hori dela-eta. Zalantza baduzu edo abisatu nahi badiguzu, idatzi e-maila amigos@guggenheim-bilbao.eus helbidera edota deitu 944 359 012 telefonora.
- 8) Adingabeek parte har dezakete? Bai. 12 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute, eta biek parte-hartzaile bezala izena eman beharko dute.
- 9) Modu jakin batean jantzi behar dut? Ez. Arropa eta oinetako erosoak janztea gomendatzen dugu. Erosotasun handiagoa izateko, hobe da fardel gehiegi ez eramatea.
- 10) Eta ekintzaren aurretik zerbait gertatzen bada? Garrantzitsua da, plaza erreserbatzean, zurekin harremanetan jartzeko datuak (*e-maila* eta *mugikorra*) berrestea, informazioa eman ahal izateko.
- 11) Zer egin behar dut izena emateko? Beharrezkoa da irailaren 21etik aurrera izena ematea (*online* edo harrera-mahaian). Plaza-kopurua mugatua da.
- 12) Ondoren, sariren bat egongo da? Parte hartuko dutela berretsi duten eta egun horretan akreditatzen diren pertsonen ekintza artistikoaren irudi bat jasoko dute ondoren, baita haren bideo dokumentala ere.